



Usurbilgo Udala

## 2018KO IRAILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Gartzia Palacios  
Miren Josune Estella Arranz  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi du:** Andoni Atxega San Sebastian

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2018ko irailaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- 2018/05/29KO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

Batzarkideek, 2018ko maiatzaren 29ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

Aktak direla-eta, alkateak esan du duela hilabete batzuk IZFEren eskaeraz sistema esperimental bat martxan jarri zutela. Sistema horren bitartez plenoan esaten zirenak audioan gorde eta hortik automatikoki testua osatzen zuten.



Usurbilgo Udala

Frogako epealdia egin ondoren, beraien inpresioa ez dela hain gustukoa izan adierazi du. Testuak luzeegiak direla uste dute eta oso gutxi landuta geratzen direla aktan, ondorioz, irakurketa ere ez dela batere xamurra gaineratu du.

Aktaren funtzioa izanik hemen hitz egindakoa garbi eta zuzen jasotzea, sistema honen bidez hori ez dela behar bezala egiten uste dute.

Ondorioz, hartu den erabakia da fase esperimental hau bukatutzat ematea eta hemendik aurrera aktak lehengo modura egitea. Hala ere, etorkizunari begira beste aukera batzuk aztertuko direla adierazi du.

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018KO UZTAILAREN 9TIK IRAILAREN 14RA (2018/0793-2018/1076).**

Alkatetzak 2018ko uztailaren 9tik irailaren 14ra bitartean (2018/0793–2018/1076) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- HAASETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO HIRIGINTZA EZAUGARRIEN ALDAKETA PUNTUALA SUSTATZEKO MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL S.A., GUREAK LANEAN S.A., ELKAR FUNDAZIOA ETA USURBILGO UDALAREN ARTEAN IZENPETU BEHARREKO HIRIGINTZA HITZARMENA BEHIN BETIKO IZAERAZ ONARTZEA.**

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.

Hasteko aurrekariak aipatu ditu, uztaileko plenoan aho batez hasieraz onartu zela eta iraileko hirigintza batzordean diktaminatuta datorrela adierazi du.

Uztailean bertan aipatu zutela dio zein garrantzitsua den Michelinen egingo den eremuaren zonifikazioa, batetik, Michelin bera kontsolidatuta geratzen baita eta, bestetik, Gureak eta Elkar-ek beraien jardueraren zati garrantzitsu bat martxan jarriko baitute bertan. Horrek ekarriko duela dio, batetik, hirigintza ikuspegitik eremu degradatu baten birgaitzea eta, bestetik, lanpostuen sorrera.

Beraz, uztailean hasieraz onartu zen hura gaur hona behin betikoz onartzera dakartela adierazi du, baita hitzarmena sinatzeko alkatea ahalmentzea ere.

Batzarkideek, Hirigintza Batzorde Informatzailearen irizpena azertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“Esp. Zenbakia: HZ.02/2018-0388



Usurbilgo Udala


GUREAK LANEAN S.A. eta ELKAR FUNDAZIOAK, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuan MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak libre utzitako gunea (43.881,09 m<sup>2</sup>) erosteko asmoa dute beren jarduerak bertan ezartzeko.



Gauzak horrela, GUREAK LANEAN S.A. eta ELKAR FUNDAZIOA Udalarekin harremanetan jarri dira Hiri Antolatzeko Plan Orokorreko Aurrerakinean zehaztutako oinarritzko irizpide eta helburuak kontutan izanik, gune horren antolamendu berria adosteko. Antolamendu berria adosteko irizpide nagusiak honako hauek izan dira:

1. Hiri-egitura fisikoari lotutako irizpideak: hiri-lotura, lurzorua optimizatzea, kalitazteko espazio publikoa sortzea
2. Erabilera nahasketari lotutako irizpideak: erabilera nahasketa, hiri-banaketa antolamendua.
3. Bidodibertsitateari eta geografia-balioak mantentzeko lotutako irizpideak: inguruko lurraldearekin lotuko diren gune berde berriak sortzea, Oria ibaia antolamendu berrian barneratzea.
4. Mugikortasun jasangarri bat lortzeko irizpideak: garraio jasangarriaren modu desberdinak nabarmentzea.
5. Egonkortasun sozialari lotutako irizpideak: menpeko pertsonen eta desgaituen autonomia erraztea, inklusibitatearen ikuspegitik; zaintzarekin lotutako ardurak erraztea; genero ikuspegia txertatzea.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremua bi gunetan banatzea hobetsi da. Alde batetik, MICHELIN ESPAÑA Y PORTUGAL, S.A. enpresak okupatutako gunea: **A-78 (TE) MITXELIN**; eta bestetik, GUREAK LANEAN S.A. eta ELKAR FUNDAZIOAK okupatuko duten gune libre: **A-110 (TE) ZAPATEGI**. Horretarako ordea, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) ZAPATEGI



Usurbilgo Udala

eremuaren Aldaketa Puntuala sustatu behar da, eta egitasmoa bideratzeko aurretik dagokion Hirigintza Hitzarmena izenpetzea hobetsi da.

Izandako elkarrizketen ondorioz, lau alderdiek, interes publiko urbanistikoa hobetzeko asmoz, HIRIGINTZA HITZARMENA adostu zuten. Plenoak, 2018ko uztailaren 24an, besteak beste, zera erabaki zuen hitzez hitz:

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkar Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena hasierako izaeraz ontzat ematea.

**BIGARRENA:** Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriko 8. puntuan ezarritakoa betetze aldera, espedientea jendaurrean jartzea 20 egunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez, ondoko iragarkia argitaratuz: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (152. zenbakia) – 2018.08.08.

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

## **HITZARMENA**

Jendaurrean egondako HIRIGINTZA HITZARMENAK honela dio hitzez hitz:

---

### **HIRIGINTZA HITZARMENA USURBILGO UDAL PLANGINTZAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO A-78 (TE) ZAPATEGI AREARAKO**

---

#### **B I L D U R I K**

Alde batetik.

Xabier Arregi Iparragirre, Usurbilgo Alkatea.

Bestetik.

Bertrand Touraton, adinez nagusia, frantziar nazionalitatekoa (.....), eragin hauetarako helbide hau duena: .....

Joxemari Sors Bagües, adinez nagusia (.....), eragin hauetarako helbide hau duena: .....

Iñaki Alkorta Andonegi, adinez nagusia (.....), eragin hauetarako helbide hau duena: .....

PARTE HARTU DUTE



Usurbilgo Udala

Xabier Agirre Iparragirrek, Usurbilgo Udalaren izenean eta ordezkartuz, alkate gisa, gaitasuna duena hitzarmen hau izenpetzeko udalbatzaren 2018ko ..... ren ... (e)ko erabakiz, Garazi Etxeberria San Miguel udal idazkariak lagundurik (ikus 1. eranskina).

Bertrand Touratonek, Michelin España y Portugal SA erakundearen izenean eta ordezkartuz (IFK A-20003570), helbide soziala Madrilen duena (Avda. de los Encuartes, 19, Tres Cantos 28760), mugagabeki eratua 1932ko irailaren 3an Donostiako Luis Barrueta notarioaren aurrean emandako eskritura bidez (protokolo zk.: 1086). Inskribatua Madrilgo Merkataritza Erregistroan, 3.398 liburukia, 193 folioa, 8. sekzioa, M-57540 orria, 148 inskripzioa (moldaketa). IFZ A/20003570. Erakunde horren ahaldu gisa dihardu, 2014ko maiatzaren 9an Madrilgo Carlos Ruiz-Rivas Hernando notarioaren aurrean emandako ahalorde eskrituraren bidez (protokolo zk.: 1066).

Joxemari Sors Bagüesek, Elkar Fundazioaren izenean eta ordezkartuz, haren presidente gisa, haren helbidea izanik: portuetxe kalea 88, 20018 Donostia (IFZ AG/20574232).

Iñaki Alkorta Andonegik, Gureak Lanean SAREN izenean eta ordezkartuz, Administrazio Kontseiluko presidente gisa, haren helbidea izanik: Illarra bidea 3, 20018 Donostia (IFZ A/20044590).

Aldeek elkarri aitortzen diote dokumentu hau izenpetzeko gaitasuna, eta aintzat harturik ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 7. Xedapen Gehigarriak ezarritakoa, hirigintza hitzarmen hau sinatzen dute. Hori horrela,

#### ADIERAZTEN DUTE

I. 2013ko uztailaren 22ko Foru Agindu bidez, erabaki zen argitaratzea «Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina», 2013ko otsailean idatzi eta udalbatzaren 2013ko maiatzaren 28ko bilkuran onartu zena (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA 172, 2013ko irailaren 10).

II. Hitzarmen hau A-78 (TE) Zapategi izeneko areari buruzkoa da, hiri lurzoru gisa sailkatua eta lurzoru industrial gisa kalifikatua, Michelin España y Portugal SA sozietatearen lursailak barne hartzen dituena. Arau Subsidiarioen Testu Bateginak aukera ematen du lantegia handitzeko, eta Txikiardiko sarbidea hobetzea planteatzen du, zehaztapen hauek eginez hirigintza ikuspegitik:

— Arearen azalera: 114.062 m<sup>2</sup>.

— Eraikuntzak hartutako azalera (handitzea barne): 34.600 m<sup>2</sup>.

— Lurgaineko aparkaleku kop.: 343 leku.

— Jarduketa sistema: kontzertazioa.

III. Gaur egun, area hau bi eratako lurzoru eta partzelek osatzen dute: alde batetik, Michelin fabrikak okupatzen dituen lurzoruak (pneumatikoak fabrikatzen ditu); bestetik, eraikuntzarik gabeko partzela, hirigintza ikuspegitik eraldatu nahi dena.

IV. Elkar Fundazioa eta Gureak Lanean SA irabazi asmorik gabeko bi erakunde dira, gizarte eta kultur arloan dihardutenak: euskal kultura zabaltzen, lehena, eta ezgaitasunak dituzten pertsonak gizarteratzen, bigarrena. Biek ala biek jakinarazi



Usurbilgo Udala

dute –Usurbilgo Udalaren aurrean– beren jarduerak A-78 (TE) Zapategi areako partzelan kokatzeko duten asmoa (eraikuntzarik gabeko partzela).

V. Michelin España y Portugal SAK adierazi du beharrezkoa dela udal plangintzan zehaztea arearen hirigintza eraikigarritasuna –oro har– eta gaur egungo eraikigarritasuna –partikularki–.

VI. Antolamendu arearen egiazko azalerak zehaztu eta egungo hirigintza eraikigarritasuna finkatzeko, Usurbilgo Udalak Mugarri SLri adjudikatu zion A-78 (TE) Zapategi arearen topometria lana. Hona hemen emaitzak:

— Arearen azalera guztira: 114.757,86 m<sup>2</sup>.

— «1 arearen» azalera (Michelinek okupatzen duena): 70.096,30 m<sup>2</sup>.

— «2 arearen» azalera (eraikuntzarik gabeko partzela): 44.661,47 m<sup>2</sup>.

— 1. arearen hirigintza eraikigarritasuna: 46.592,66 m<sup>2</sup>(t).

Eraikuntzarik gabeko partzelaren azalera zehatz-mehatz zehaztuko da mugaketa lana egin ondoren.

VII. Elkar Fundazioak eta Gureak Lanean SAK adierazi dute, bai Usurbilgo Udalaren aurrean bai Michelin España y Portugal SAKen aurrean, eskuratu egin nahi dutela A-78 (TE) Zapategi arearen barnean dagoen eraikuntzarik gabeko partzela. Hori dela-eta, 2016ko azaroaren 25ean, dokumentu bat izenpetu zuten Michelin España Portugal SAK –alde batetik– eta Elkar Fundazioak eta Gureak Lanean SAK (Gureak Tailer Babestuak SA, lehen) –bestetik–, salerosketa kontratua formalizatzeko akordioa izenburupean, finken transmisiorako prozedura arautzen duena (ikus 2. eranskina).

VIII. Gaur egun, Usurbilgo Udala Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusten ari da, indarrean dagoen plangintzaren ordeztu erabiliko den Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazten. Plan horren Aurrerakinean, antolamendu helburu batzuk ezarri dira, hirigintza jarduera berrian gauzatu beharko direnak, honako hauek izanik aipagarrienak:

— Hiri lotura bat sortzea antzinako hiri sareen eta sare berrien artean, lotura on bat egiteko oinezkoentzat eta txirrindularientzat, oso kontuan hartuko duena ibaiaren balio bisuala, era egokian gaudituta gaur egun Urbileko arearekiko dagoen desnibel handia. Gainera, lotu egin beharko da areako trafiko motorduna inguruko errepide sarearekin, era egoki eta aldi berean bereizia oinezkoen eta txirrindularien konexio nagusitik.

— Lurzorua optimizatzea, urbanizatu beharreko area berriak nahikoa dentsitate izateko moduan, lehenasuna emanez eraikuntza bertikalagoi, lurzoru gutxiago okupatzeko. Beraz, muga ezarriko zaie hiri sakabanaketa eta lurraren okupazio handiegiak eragiten dituzten eraikuntza tipologiei.

— Kalitatezko espazio publiko bat sortzea, Lasarte-Oriako erdiguneari lotua, alde batera utzirik autoaren nagusitasunean oinarritzen den eredua, helburua izanik bizikidetzaren, aisiaren, trukearen eta beste hainbat erabileraren inguruan ardaztutako espazio bat sortzea. Espazio eta ekipamendu publikoen sareak herritarrarentzako espazio bat izan behar du. Beraz, garrantzia emango zaie erosotasunari eta hiri kalitateari, hiri diseinu egoki baten bitartez. Espazio librean sarea oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarearen inguruan antolatuko da nagusiki, eta garrantzia emango zaio Oria ibaiaren balio bisualari.



Usurbilgo Udala

— Jarduera ekonomikoak konbinatzea (lantegiak, bulegoak, tailerrak, etab), baita merkataritzako jarduerak ere (saltoki handietako erabilerak izan ezik), aprobetxatuz ekipamenduen eta jardueren gune handien erakarpen gaitasuna, gizarte, kultur, ekonomia jarduerak aktibatzen.

— Karga eta deskarga lanek espazio publikoan sortzen dituzten disfuntzioak saihesteko ahalegina egingo da. Horretarako, aprobetxatu egingo da Urbilen eta arearen hegoaldearen artean dagoen desnibela. Bereizi egingo dira biltegiak, karga eta deskarga zonak eta plataforma logistikoak, beheko kotan kokatuta, eta haren estalki gainera igaroko dira oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideak.

— Berdegune berriak sortzea, inguruko areei lotuak, hiri eta natura espazioak lotuko dituzten korridore berdeak sortzeko, herritarren zerbitzura. Hortaz, espazio publikoen eta berdeguneen sare bat sortuko da, arearen barnean, inguruko berdeguneekin eta Oria ibaiarekin lotuta, aintzat harturik ingurune berriaren ingurumen kalitatea eta bizigarritasun baldintzak.

— Lehentasuna ematea oinezkoei eta txirrindulariei, eta kontuan hartzea garraio kolektiboa eta haren intermodalitatea, sare horiek guztiak integratuz ibilgailu motodunarekin. Azken batean, bultzada ematea garraibide jasangarrienei.

— Genero ikuspegia erabiltzea espazio publikoa antolatu eta diseinatzeko, hirigintza inklusibo baten alde, kontuan izango duena lan produktiboa eta erreproduktiboa, aintzat harturik gizarte talde ahulenak, eta helburua izanik zaintza, haziera eta mendekotasunaren arreta erraztea.

IX. Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 4. eta 5. artikulua betez, soilik interes publikoagatik antola daiteke lurzoruaren erabilera hirigintza plangintza bidez. Hori horrela, arau hauek hartuko dira kontuan hirigintza antolatzeko ahala erabiltzean:

a) Nahikoa informazio ematea egungo errealitateari eta errealitate horrek izan dezakeen bilakaeraren inguruko zentzuzko balorazio bati buruz.

b) Interes eta behar guztien –publiko nahiz pribatu– haztapan justifikatua, hirigintzako funtzio publikoaren helburuena, eta 2/2006 legearen arabera funtzio horren oinarrian dauden printzipioena.

c) Behar adina arrazoitutako aukerak egitea eta erabakiak hartzea, proportzionalak bete nahi diren helburuei dagokienez.

X. Plangintzako Arau Subsidiarioak berrikusteko tramitea –Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren idazketa bidez– denboran luzatu egingo denez, Udalak kontuan izan du A-78 (TE) Zapategi arearen aldaketa puntuala egiteko aukera, HAPOren Aurrerakinean ezarritako irizpideak errespetatuta.

XI. Hirigintza legedia aplikatuz (jada aipatu diren 2/2006 Legearen 4. eta 5. artikulua), kontuan izanik A-78 (TE) Zapategi areako lurzoruen egungo hirigintza egoera eta inguru degradatu bat birgaitzeko beharra, baloratu egin dira beren neurrian A-78 (TE) Zapategi areari dagokionez plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala justifikatzen duten interes eta behar publikoak eta pribatuak, honako hau izanik emaitza:

a) A-78 (TE) Zapategi area berrantolatzea, bereiziz Michelinen industria jardueraren eraginpean dagoen lurzorua eta eraikuntzarik gabeko lurzorua.



Usurbilgo Udala

b) Bi antolamendu area sortzea: batak okupatutako lurzorua hartuko du, eta aukera emango du sendotu eta kuantifikatzeko Michelin España y Portugal SArene egungo eraikigarritasuna; besteak eraikuntzarik gabeko lurzorua berrantolatuko du, Elkar Fundazioaren eta Gureak Lanean SArene jarduerak ezartzeari begira.

c) Eraikuntzarik gabeko area berrantolatzeak aukera emango du VIII. puntuko helburuak betetzeko.

d) Antolamendu irizpideez gainera, Aldaketaren espedientean jasotako araudiak urbanizazio eta eraikuntza baldintzak arautuko ditu, honako hauei begira:

— Inpaktu txikiko urbanizazio bat egitea, ahalik eta gehien murriztuz lurzoruaren zigitatzea eta iragazgaiztea.

— Metodo bioklimatiko pasiboak erabiltzea, energia berriztagarriak erabiliz eta efizientzia energetikoko irizpideak aplikatuz, ahalik eta gehien txikitzeko iturri fosilekiko eta nuklearrekiko mendekotasuna.

— Urbanismo eredu jasangarri bat aplikatzea, eraikuntza jarraibide bioklimatikoetan oinarritu dadin: eraikinen orientazioa, bertan sortutako eguzki energia edo geotermikoa erabiltzeko aukera, ingurune baldintza klimatikoak leuntzen lagunduko duten elementu naturalak integratzea, etab. Horiek guztiak plangintzan zehaztu beharreko gaiak dira, eta aukera emango dute ondoren etorriko den eraikuntzan energia kontsumoak murriztu eta iturri berriztagarriak optimizatzeko. Izan ere, helburua da hiri garapen berriak hurbiltzea autosufizientzia energetikora, plangintza eta proiektio urbanistiko eta arkitektonikoaren bidez.

— Hiri garapena uraren zikloari lotzea (euri ura biltzea, erabilitako ura berrerabiltzea, etab.): eraikinen estalkiak eta zorupea ura biltzeko aprobeztatzea proposatzen da, erabilera jakin batzuetarako.

— Baliabideen eta hondakinen gestioaren tokiko kontrola urbanizatu beharreko area berrietan. Hirigintza plangintzak eta proiektuak aintzat hartu behar dituzte murriztean, berrerabiltzean eta birziklatzean oinarritzen den hondakin kudeaketarako mekanismoak eta azpiegiturak (eraikuntzan nahiz zorupean koka daitezkeenak).

— Mendekotasun edo ezgaitasun bat duten pertsonen autonomia erraztea: aukera berdintasuna egungo gizarte politiken ardatzetako bat da, eta mugitzeko eragozpenak dituzten pertsonen hirian ibiltzeko duten eskubidea kokatzen da haren barnean.

— Zaintza, haziera eta mendekotasunaren arreta erraztea; genero ikuspegia plangintzan sartzea: espazio publikoa diseinatzean, hirigintza inklusibo baten alde egitea, kontuan izango duena bai lan produktiboa bai erreproduktiboa.

e) Area degradatu bat birgaitzea, gizarte eta kultur izaera nabarmeneko jardueren bitartez, 950 lanpostu inguru sortzeko aukera emango dutenak.

Azken batean, azaldutakoak eragina du egiturazko hirigintza antolamenduaren zehaztapenetan, eta jaso egin beharko dira, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. artikulua ezarritakoari jarraiki, Usurbilgo Arau Subsidiarioen Aldaketaren espedientean.

XII. Kontuan izanik adierazitako guztia, aldeek erabaki dute honako hauek finkatzea dokumentu honen bitartez: indarrean dauden Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) Zapategi arearen aldaketa puntualaren espedienteak jaso beharko dituen hirigintza zehaztapenak, partikularrek bete beharko dituzten hirigintza obligazioen irismena,





Usurbilgo Udala

eta horiek betetzeko modua, xedea izanik udalaren helburuak betetzea arearen birgatzean eta berrantolamenduan.

Aurretik adierazitakoa aintzat harturik, Hirigintza Hitzarmen hau izenpetzen da, honako xedapen hauen arabera.

#### XEDAPENAK

Lehenengoa. Xedea.

Hirigintza hitzarmen honen xedea da indarrean dauden Plangintzako Arau Subsidiarioetako A-78 (TE) Zapategi arean aldaketa puntual bat egitea, bi area bereizi sortu eta haien antolamendua eta exekuzioa definitzeko, aintzat harturik gaur egun idazten ari den Antolamenduko Plan Orokorraren aurrerakinean zehaztutako irizpideak.

Oinarrizko eta antolamenduko hirigintza zehaztapenak –espediente horrek kontuan hartu beharko dituenak– dagozkion hirigintza fitxan eta orri grafikoetan agertzen dira (ikus 3. eranskina).

Enpresaren jarduerak okupatzen duen arean, aldaketa espedientea mugatuko da egungo antolamendua jaso, egungo erabilerak finkatu eta eraikigarritasun parametroak definitzera. Michelinen partzelaren jarduerari, eraikigarritasunari edo erabilerari eragingo dion edozein aldaketak juridikoki beharrezkoak diren plangintza eta kudeaketa tresnen tramitazioa eragingo du.

Gureak eta Elkar kokatuko diren area berrian, behar beste xehetasunez aztertuko da hirigintza antolamendua, haren exekuzioak Plan Berezi baten beharra izan ez dezan.

Gainera, hitzarmen honen bitartez, jabe pribatuei dagozkien hirigintza betebeharrak espezifikoak –aitortzen zaizkien eskubideen kontraprestazio gisa– zehaztuko dira.

Bigarrena. Hirigintza plangintzako tresnen formulazioa eta tramitazioa.

Akordioei babes juridikoa emateko, Michelin España y Portugal SAK, Elkar fundazioak eta Gureak Lanean SAK konpromisoa hartzen dute A-78 (TE) Zapategi eremuaren Aldaketa Puntuala aurkezteko Usurbilgo Udalean, haren tramitaziorako, bi hilabeteko epean gehien jota, hitzarmena izenpetzen den egunetik kontatzen hasita.

Bere aldetik, hitzarmena betetzeari begira, Usurbilgo Udalak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen baitan, A-78 (TE) Zapategi areari dagokion Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualaren Proiektua tramitatu eta onartzeko, bere baitan bilduko dituen Hitzarmen honetan arautzen diren antolamendu zehaztapenak –egiturazkoak eta xehetasunezkoak–.


Hirugarrena. Arau Subsidiarioen aldaketa espedientearen gutxieneko edukia.

Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteak, A-78 (TE) Zapategi areari dagokionez, honako oinarrizko hirigintza zehaztapen hauek barne hartuko ditu:

1. Bi antolamendu area mugatzea.

Gaur egun Michelin España y Portugal SAK erabiltzen duen area jarduera ekonomiko berriak (Gureak-Elkar) ezarri nahi diren areatik bereizteko, bi antolamendu area sortuko dira aldaketa espedientearen, jarduera ekonomikoetarako hiri lurzoru gisa sailkatuak, honako azalera hauek izango dituztenak:

A. A-78 area (Mitxelin izenekoa). Haren azalera murriztuko da: 70.096,39 m<sup>2</sup>.



Usurbilgo Udala


B. A-110 area berria (Zapategi): 45.561,47 m<sup>2</sup> ingurukoa. Arearen mendebaldean kokatutako beste partzela bat eransteko gestioak egiten ari dira (Lasarte-Oriako Geltoki kalearen eta Oria ibaiaren artean kokatutakoa), area berriaren sarbideak modu egokian antolatzeko.

Mugarri SLk egin ditu neurketa topografikoak (ikus 4. eranskina).

2. A-78 (TE) Mitxelin areari Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean dagokion eraikigarritasuna definitzea.

A-78 (TE) Mitxelin areak, Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean jasotako muga berriekin, hirigintza eraikigarritasun hau izango du:

	SOTOA	BEHE SOLAIRUA	BEHE SOLAIRUA %50	1. SOLAIRUA	2. SOLAIRUA	3. SOLAIRUA	GUZTIRA m <sup>2</sup>
1 ERAIK.		776,04	31,76	839,57	839,57	81,40	<b>2.568,34</b>
2 ERAIK.		512,27	24,77				<b>537,04</b>
3 ERAIK.		1.915,83					<b>2.118,68</b>
A				73,75			
B				82,42			
C				46,68			
4 ERAIK.		479,02		209,95			<b>688,97</b>
5 ERAIK.		201,15					<b>201,15</b>
6 ERAIK.		24.397,10					<b>29.603,02</b>
S1	921,13						
S2	1.821,57						
A				75,85			
B				602,66			
C				415,72			
D				56,62			
E				940,93			
F				230,41			
G				141,03			
7 ERAIK.		1.528,59					<b>1.528,59</b>
8 ERAIK.		820,00		86,93			<b>906,93</b>
9 ERAIK.		1.886,38		513,81			<b>2.400,19</b>
10 ERAIK.		5.991,76					<b>5.991,76</b>
A1		25,99					<b>25,99</b>
A2		6,06					<b>6,06</b>
A3		7,58					<b>7,58</b>
A4		8,36					<b>8,36</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.742,70</b>	<b>38.556,13</b>	<b>56,53</b>	<b>4.316,33</b>	<b>839,57</b>	<b>81,40</b>	<b>46.592,66</b>



Usurbilgo Udala

3. Area berriaren hirigintza zehaztapenak definitzea: A-110 (TE) Zapategi area.

Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean tramitatu izateko sortuko den hirigintza fitxa berriaren edukia zehazteko, jaso beharko dituen oinarritzko hirigintza zehaztapenak definitzen dira, kontuan izanik litekeena dela egokitzapenak egin behar izatea tramitatuko den hirigintza dokumentuan.

Arearen azalera gutxi gorabehera: 45.561,47 m<sup>2</sup>.

Lurzoruaren sailkapena: Hiri lurzoru finkatugabea.

Lurzoruaren kalifikazioa: Jarduera ekonomikoak.

Oinplanoko okupazioa: 24.800 m<sup>2</sup>.

Azalera eraikigarria solairuardeetan: % 30.

Profila, partzela eraikigarrien arabera:

— P11 (Elkar): BS + solairuardea + bi soto.

— P.2.1 (Gureak Industrialia 1): BS + 1S + solairuardea + bi soto.

— P.2.2 (Gureak Industrialia 2): BS + solairuardea + bi soto.

— P.2.1 (Gureak Industrialia 1): BS + solairuardea + bi soto.

— P.2.4 (Gureak Zerbitzuen Eraikina): BS + 4 + bi soto.

Hirigintza eraikigarritasuna guztira: 65.080 m<sup>2</sup> (t).

Azalera pribatu eraikiezina: 7.236,47 m<sup>2</sup>.

Estandarrak betetzea.

Berdeguneen eta Espazio Publikoen Tokiko Sistema: 7.049,00 m<sup>2</sup>.

Tokiko Bide Sistema: 5.330,00 m<sup>2</sup>.

Aparkaleku publiko eta pribatu kop.: Hirigintza dokumentuan zehaztu beharrekoa.

Ibai sistema: 1.146,00 m<sup>2</sup>.

Gehienezko altuera: 20 m teilatu hegaleraino, funtzionaltasunagatik justifikatzeko aukera baztertu gabe.

Gutxieneko partzela: 750 m<sup>2</sup>.


Landaredia: 380 zuhaitz.

Laugarrena. Hirigintza lagapenen eta arearen urbanizazio obrak ordaintzeko betebeharrak.

Michelin España y Portugal SAK adierazten du berari dagokion hirigintza eraikigarritasun osoa A-78 (TE) arean gauzatuko dela, berea den lurzorurik ez dagoelako A-110 (TE) Zapategi arean.

Hori dela-eta, Michelin España y Portugal SAK bere jardueran erabiltzen duen arean, arearen antolamendua, erabilerak edo eraikigarritasunak aldatzeko unean definituko dira hirigintza betebeharrak, unean-unean indarrean egongo den hirigintza legediaren arabera zehaztuko diren plangintza eta kudeaketa tresnen tramitazio bidez.

Sortzen den area berrian, hiri lurzoru finkatugabea izanik, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 25. artikulua eta uztailaren 3ko hirigintza estandarrei buruzko 123/2012 Dekretua beteko da:



Usurbilgo Udala

1. 2.733,69 m<sup>2</sup> lagatzea Berdeguneen eta Espazio Libreen Tokiko Sistemari (% 6). Hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 6.2.a artikulua.
2. Aparkaleku publikoak lagatzea.
3. Landaredia: 380 zuhaitz, 1 zuhaitz 100 m<sup>2</sup>/(t) bakoitzeko. 123/2012 Dekretuaren 6.2.c artikulua.

Baldin eta Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean definitutako antolamendu ezaugarriek aukerarik ematen ez badute –edo eragozpen handiak jartzen badituzte– legediak ezarritako gutxieneko estandarrak zehazki betetzeko, ekonomikoki konpentsatu egin beharko da aldea. Hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren 7.1 artikulua.

4. % 15aren lagapena komunitateak hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan duen partaidetzagatik. Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 27.5 artikulua araberan, kontuan izanik ezin zaiola Udalari adjudikatu partzela eraikigarri baten jabari osoa, eskudiruzko ordainketa egingo da lagapenaren orde.

Ordaindu beharreko kopurua Hirigintza Jarduketa Programan zehaztuko da, edo Kontzertazio Hitzarmenean, ekitatez banatzeko tresna tramitatu aurretik.

5. Arearen urbanizazio obra guztiak ordaintzea.
6. Usurbilgo Udalari doan lagatzea erabilera publikoa izango duen lurzoru guztia (bideak, parkeak, lorategiak, etab.).

Bosgarrena. Usurbilgo Udalaren betebeharrak.

Hitzarmen honetan jasotakoa betetzeari begira, Usurbilgo Udalaren betebeharrak izango dira:

1. Bere eskumenen baitan, tramitatzea eta onartzea A-78 (TE) Zapategi areari dagokion Plangintzako Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, hitzarmen honetan eta eranskinetan bildutako antolamendu zehaztapenak –egiturazkoak eta xehetasunezkoak– jasoko dituena.
2. Aldaketa espedientea behin betiko onartua izan ondoren, tramitatzea eta onartzea Hirigintzako Jarduketa Programa, Kontzertazio Hitzarmena, Birpartzelazio Proiektua eta Urbanizazio Proiektua.
3. Birpartzelazio Proiektutik sortutako partzelak gorabehera, segregazio lizentziak ematea Michelin y Portugal España SA sozietateak Elkar Fundazioaren eta Gureak Lanean SAren alde besterenduko dituen partzelak transmititu eta Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko.

Seigarrena. A-110 (TE) Zapategi area kudeatzeko epeak.

Arau Subsidiarioen aldaketa espedientea behin betiko onartu ondoren –egiturazko eta xehetasunezko gaiak arautuko dituena–, bi hilabeteko epean, onarpen egunetik kontaktzen hasita, Hirigintzako Jarduketa Programa aurkeztuko da Usurbilgo Udalean, besteak beste honako hauek arautuko dituena:

- Exekuzio unitatea edo unitateak mugatzea.
- Exekuzio araubidea (publikoa edo pribatua) eta haren jarduketa sistema.



Usurbilgo Udala

— Ekitatez banatzeko proposamena eta urbanizazio proiektua aurkezteko epeak zehaztea.

— Urbanizazioko aurreproiektua.

— Urbanizazio obren –eta, hala badagokio, eraikuntza obren– exekuziorako aldi baterako programa definitzea.

Zazpigarrena. Hirigintza prozesuaren «Intuitu Personae» legitimazioa.

Aldeek onartzen dute Hirigintza Hitzarmen honen «Intuitu Personae» izaera. Hortaz, hitzarmen honen bidez hartutako konpromiso, betebeharrak eta eskubide guztiak, eta haien garapena hirigintza dokumentuen bitartez, idatzi honen sinatzaileei lotuak eta atxikiak daude, eta Usurbilgo Arau Subsidiarioetako egungo A-78 (TE) Zapategi areara mugatuak.

Beraz, hitzarmenean parte hartu ez duen inor saiatzeko bada prozesu honetako baldintza bereziak aplikatzen, Usurbilgo Udalak aukera izango du, klausula hau erabiliz, atzera egiteko prozesu honen hasierako hirigintza egoerara.

Zortzigarrena. Eraginkortasuna.

Hitzarmena eta haren aurreikuspenak eraginkorrak izan daitezkeen, behin betiko onartu egin beharko da Usurbilgo Arau Subsidiarioen aldaketa, aurreko klausuletan aipatu diren baldintza eta parametro urbanistikoetan.

Onarpen horren ondorioz hirigintza aurreikuspenik aldatuko balitz, sinatzaileek aldaketa negoziatuko dute, baldintza berrietara egokitzeko eta elkarri aitortutako prestazioen oreka berrezartzeko.

Baldin eta, udalaz gaindiko administrazioen ebazpenen ondorioz, behin betiko onartzen ez badira Arau Subsidiarioen aldaketa espedientean jasotako A-78 (TE) Zapategi arearen oinarriko antolamendu zehaztapenak –egiturazkoak eta xehetasunezkoak–, aldeek ez dute hitzarmen honetan jasotako obligaziorik bete beharrik izango.

Bederatzigarrena. Formalizazioa eta jurisdikzioa.

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du. Hitzarmenaren inguruan sor litezkeen desadostasun eta auzi guztiak (betetzeari edo ez betetzeari dagokionez, aldaketari edo ebazpenari dagokionez) Usurbilgo Udalak ebatziko ditu, eta erakunde horren erabakiek amaituko dute administrazio bidea. Erabaki horien aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, arlo hori arautzen duen legediak ezarri moduan.

Aurretik azaldutakoarekin guztiarekin ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte, eragin bakarrerako, Usurbilen, 2018ko .....ko ...(e)(a)n.

Usurbilgo Udala, alkatea. Michelin España Portugal SA, Bertrand Touraton. Usurbilgo Udala idazkaria. Elkar Fundazioa, Joxemari Sors. Gureak Lanean SA, Iñaki Alkorta Andonegi.



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2018ko irailaren 19an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko hirigintza ezaugarrien Aldaketa Puntuala sustatzeko Michelin España y Portugal, S.A., Gureak Lanean S.A., Elkar Fundazioa eta Usurbilgo Udalaren artean izenpetu beharreko Hirigintza Hitzarmena behin betiko izaeraz ontzat ematea.

**BIGARRENA:** Alkateari ahalmena ematea Udalaren izenean hitzarmen hau izenpetzeko, hitzarmena behin betiko onartuzat jo ostean.

**HIRUGARRENA:** Era berean, erabaki honen berri interesatuei ematea.”

Bozketan egin denean, emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez onartu da.

## 4.- MOZIOA: LOIOLAKO KUARTEL MILITARRA ZUBIETARA LEKUALDATU NAHI DUTELA-ETA.


Alkateak adierazi du mozioa EH Bildu udal taldeak aurkeztu duela.

Jarraian, Josune Estellak mozioaren testua irakurri du.

Alkateak hitza eman die gainontzeko taldeei.

Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du, hasteko, mozioaren hasieran esaten dela Donostiako Udalak bere beharren eta interesen arabera egiten duela. Beraien ustez udal guztiek egiten dute horrela eta gainera horrela egin behar dutela uste dute, norberak bere interesak defendatu behar dituela.

Mozio honetan bi gai nahasten direla ikusten dute, batetik, kuartelaren aldaketa eta, bestetik, desmilitarizazioa.



Usurbilgo Udala

Kuartelaren aldaketari dagokionean, ez dela gai berria dio, duela 10 urtetatik dagoen gai bat dela eta ez dakitela zehazki PTP-a nola dagoen, beraz, beraien iritzia ezin dutela hain sinpleki eman.

Desmilitarizazioari buruz adierazi du agian gai honetan ados egon daitezkeela baina iruditzen zaie ez dela gai bat hemen sinpleki jorratzekoa. Gaineratu du agian EAJ gai honetan bidelagun izan daitezkeela EH Bildurekin batera.

Bi gaiak nahasten direnez, Josune Urkolak adierazi du EAJ abstenitu egingo dela.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du aspaldiko gaia dela Donostiako Udalean. Bere garaian Elorza alkateak behin baino gehiagotan eskatu omen zuen kuartelak hortik kentzea, lur horiek babes ofizialeko etxebizitza berriak egiteko behar zirelako. Eskaera honen aurrean jasotzen zuen erantzuna beti berdina zela esan du, Donostiako hiria estrategia aldetik interesgarria dela eta ezin dutela hiria utzi. Ondoren, Izagirre alkatea ere berdin jardun zela erantsi du eta, orain, Goia alkatea ere berdin.

Eskaera berdina egiten bada, erantzuna jakina dela esan du. Bere ustez egin behar dena da beste proposamen bat. Kuartela beste lur batzuetan jartzeko eskaini behar zaiela uste du.

Donostiako Udalaren maiatzeko plenoan Alderdi Sozialistak eskaera bat aurkeztu zuela jakinarazi du eta honen berri Antolakuntza batzordean eman zuela gogoratu du. Idatzi horretan kuartela beste leku batetara eramatea eskatzen zela esan du, kokalekua zehaztu gabe. Gaur bertan prentsan agertzen dela dio Donostiako Alderdi Sozialistak proposatzen duela kuartela Antondegira (Martutene) eramatea. Beste alderdiek maiatzeko eskaera ez zutela ondo hartu dio eta kasu honetan ere ez dakiela dio beste alderdiek proposamen hau nola hartuko duten.

Uste dute, batetik, kuartela orain kokatuta dagoen terrena babes ofizialeko etxebizitzak egiteko behar dela eta, bestetik, ez bada proposamenik egiten kuartela lekualdatzeko, ez dutela oraingo lekua utziko.

Amaitzeko, Fermin Orue-Echevarriak adierazi du ez duela kuartel militarrik inon egoterik nahi baina, gauza bat dela zer nahi duten eta bestea errealitatea nolakoa den, hori horrela, kontra bozkatuko duela esan du zeren proposatzen denarekin kuartela bertan geratuko da eta etxebizitzak ez dira egingo.

Alkateak aurreko biek esandakoari buruz, hasteko adierazi du interesgarria iruditu zaiola Josune Urkolak esan duena udalok norberaren interesen arabera aritzen garela eta hori dela gure egitekoa. Hainbat alditan esan dutela dio udalok gure udalerriaz aparte inguruarekin, gure eskualdearekin, gure herrialdearekin harremanetan gauden neurrian udal bakoitzak hartzen dituen erabakietan oso kontutan hartu behar dituela ingurukoak ere; bestela, norberekeria ariketa soil bat litzatekeela dio eta udalon jokabide hori ez dela onartzen eta ez dela onesten inongo hirigintza edo lurralde



Usurbilgo Udala

antolaketakoko planteamenduetan. Udal guztiok behartuta gaudela dio gure ingurua kontutan hartzera eta horregatik hain zuzen ere udaletan Plan Orokorrak-eta onartzen direnean, plan horiek ez direla besterik gabe onartzen esan du, derrigorrean udalez gaindiko erakundeetara jo behar dutela hauetan onartu ditzaten, norbere interesek besteen interesekin bateragarri izan behar dutelako. Beraz, elkartasun ariketa simple bat dela uste du.

Jarraitu du esanez Donostia dela norberekeria adibide garbietenarikoa. PTPak eztabaidan jarri zirenean esan zutela dio eskualde honetan beharrezkoa zela ikuspegi zabalago batetik ikustea zein ziren eskualdearen beharrak. Honen aurrean, Donostiako ordezkariak garbi esan zutela dio beraien planteamendua bere horretan mantenduko zituztela Donostiako interesak zirelako. Hori egunero ikusten ari direla eta oso ebidenteak diren adibideak badituztela dio. Adibide moduan aipatu du Belartza, Belartza egin denean Usurbil ez dela kontutan hartu eta Usurbili nabarmen eragiten diola eta oso kalte handia egiten diola salatu du.

Donostiak berea egiten duela esan du, bere ikuspegitik eta berarentzat, ingurukoak aintzakotzat hartu gabe. Zubietarrak ez dituela inondik ere aintzat hartzen salatu du, legalki egin beharko lukeenean. Usurbil ere ez duela aintzakotzat hartzen dio, gainera, irudipena daukala dio kontrakoa egiten duela, zenbat eta gehiago izorratzen gaituzten orduan eta hobeto. Errauste plantaren adibidea aipatu du. Errauste plantaren hasierako kokapena ez zela oraingoa dio, beste aldera baizik. Baina Denis Itxasok ideia brillantea eduki zuela dio, kartzelaren ondoan jarri gabe hobe zela honantzago ekartzea, hau da, zubietarrei eta usurbildarrei kalte ahalik eta handiagoa egiteko.

Beraz, Josune Urkolaren iritzia guztiz kontra, udalok derrigortuta gaudela dio gure inguruarekin elkarlanean aritzera eta horrela jokatzeko ez duen udal batek ez duela gure errespeturik merezi azpimarratu du.

Bestetik, desmilitarizazioa eta kuartel aldaketa bi gai banatu direnari buruz, Josune Urkolari eskatu dio azaltzeko nolatan bereizi daitezkeen biak. Herrialde bat desmilitarizatu nahi badugu nola planteatuko dugun irtenbide bezala kuartel aldaketa, izatekotan kuartela kentzea planteatu beharko dutela dio. Mingarria dela esan du Eneko Goiari entzutea esaten "Guk Espainiako Gobernuari proposatuko diogu kuartela Zubietara eramatea". Hori komunikabideen aurrean esatea eta hain lasai geratzea benetan mingarria egin zitzaiola azaldu du.

Udal honetan, behin baina gehiagotan esan dien moduan, zoritxarrez gutxitan sumatu dutela dio EAJ udal taldeak gai honekin herri honen interesen aldeko postura hartu duenik, baizik eta alderdiaren interesen aldeko jarrera hartu duela uste du. Hori legealdi honen hasieratik eskatu zien gauza bat dela dio, hain zuzen ere, gai hauetan herri gisa jokatzeko denon interesekoa delako. Beste herri batzuetan horrela egin dutela adierazi du, izan ere beste herri batzuetako EAJ eta PSEk halako azpiegiturak beraien herrietara eramane dituztenean aurka bozkatu baitute.

Alkateak azken paragrafoan esan duenari buruz Josune Urkolak erantzun dio ez duela zuzen esan. Lehenengo aldia dela esan du gai hau Antolakuntza batzordera edo





Usurbilgo Udala

Plenora ekarri dela. Gertatzen dela dio gai batean gauza asko nahasten ditugula. Erraustegiaren gaia ekarri izan dutela Udalbatza honetara baina gai hau ez.

Fermin Orue-Echevarriak azpimarratu du legegintzaldi honetan herriaren interesekoak ziren gaietan EH Bildurekin batera aldeko bozka askoz gehiagotan eman duela aurka baino.

Bestalde, ondo geratzen dela dio esatea denok gaudela kuartelaren aurka, gerren aurka, militarizazioaren aurka... baina Donostiako Udalak kontutan eduki behar duela uste du ea zer irabazten duen eta zer galtzen duen operazio horrekin. Kontutan hartzekoa dela adierazi du kuartela beste leku batera eramaten bada eta Udalak berarentzat hartzen badu Loiolako lur hori, bertan etxebizitza pilo bat egin daitezkeela. Esandako hau kontutan hartuta bere ustez merezi du, kontrako postura hartu ezker ez dela ezer aurreratzen esan du.

Mirari Azurmendik alkateari galdetu dio ea Eneko Goiari eskatu ote dioten gai honi buruzko bilera bat egitea.

Alkateak erantzun dio gai honekin zehazki ez diola eskatu. Eneko Goiarekin Zubietako gaiak aztertzeko biltzen direla bai eta bilera horietako bat pendiente dutenez, gai honi buruz ere hitz egin ahal izatea espero duela jakinarazi du.


Jone Urdapilletak galdetzen du Eneko Goiak ez al duen kontsultatu behar zubietarrekin beraien lurretan zer egin nahi duen eta zehazki Zubietako Herri Batzarrarekin.

Mirari Azurmendik adierazi du pleno honetan bertan hirigintzako gai potolo bat tratatu dela eta alkateak esan duen moduan "horrek bere prozedura eramaten du", Donostiako Udalean ere horrela izango dela dio. Horretaz gain, horrelako gai potoloa izanda eta ardura baldin badago, normala iruditzen zaiola esan du Donostiako alkatearekin hizketaldi bat izateko saiakera egitea.

Alaitz Aizpuruak adierazi du zilegi dela noski bilera hori eskatzea eta akaso beraien egin beharra baita ere, baina Donostiako alkateak ere pauso hori eman zezakeela uste du, gutxienez azaltzeko ze asmo duen.

Jone Urdanpilletak zehaztu du eskualde mailan eragin dezakeen erabakia izan daitekeela.

Alkateak publikoan daudenei hitza eman die.



Usurbilgo Udala

Zubietako alkateak hitza hartu du eta hasteko eskertu egin du mozio hau plenora ekarri izana. Zubietako Herri Batzarreko kide eta zubietar bezala beraien burua babesik gabe ikusten dutela azpimarratu du.

Hainbat gauza salatu nahiko lituzkeela adierazi du. Batetik, salatu du euskal partidu politiko batek militarrentzat konponbidea jartzea. Kontutan hartu beharrekoa dela dio gaur egun Loiolan 1.000 militar edo gehiagorentzat lekua egongo dela, baina %10a ere ez dela egongo bertan. Pleno honetan aipatu den moduan, desmilitarizazioaren alde bagaude kuartela ez dagoela inora eraman beharrik azpimarratu du. Kentzeko eskatu beharko litzaiekeela uste du eta ez balute kenduko hori beste gauza bat dela dio baina agian kokapen berrira ere ez luketela ekarriko gaineratu du.

Salatu nahi duen bigarrenari buruz esan du hemen aipatu dela Donostiako Udalarri bilera bat eskatzea. Horri buruz adierazi du Donostiako Udala eta Usurbilgo Udala legez derrigortuta daudela Zubietako eremuan egingo den edozein obretan gutxienez esatea zer egin nahi den eta salatu du zubietarrek prentsan argitaratu dena bakarrik dakitela. Beraz, jarraitu du esanez Zubietako Herri Batzarrak ez daukala erreguka Donostia edo Usurbilera joan beharrik galdetzera Zubietan zer egin behar den, bi Udalak derrigortuta baitaude gutxienez esatera eta, ondoren, gutxienez beraien iritzia entzutera.

Berriz ere eskertu egin du mozio hau aurkeztu izana, zeren horrela ikusten baitute Usurbilen aldetik babes pixka bat badutela, Donostiaren aldetik ez dutena.

Fernando Iturralde Zubietako herritarrak hitza hartu du eta adierazi du berak sentitzen duena dela Donostia momentu honetan Judasen papera egiten ari dela, txanpon batzuen truke Zubietara saltzen ari dela.

Josune Urkolak galdetu du ea badakiten Donostiako Udalean EH Bilduk honen antzeko moziorik aurkeztu ote duen.

Ez dakitela erantzun zaio.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordean aztertu eta gehiengoz onartua izan zen mozioa aztertu dute eta gehiengoaren aldeko botoarekin onartu dute, honela dio:

“Berriki jakin ahal izan dugu, honako kasuan ere komunikabideen bitartez, Donostiako Udalak Loiolako kuartel militarra Zubietara lekualdatzeko eskatu diola Espainiako Gobernuari. Antza, Donostiako Udalak Loiolako kuartelak hartzen duen lurzorua berreskuratu nahi du, hiriaren garapenarentzat garrantzitsua” delakoan. Gaia ez da berria. Hamar urte baino gehiago pasatu dira orduko alkate Odon Elorza Madrilera joan zenetik proposamen bertsuarekin. Proiektu hori, beraz, aldian-aldian haizatzen dute Donostiako ordezkari instituzionalek, euren beharren eta interesen arabera.



Usurbilgo Udala

Oraingo honetan Eneko Goiak kartzela ez dela egingo jarri du aitzakiatzat proposamena egiteko. Haren hitzetan, Zubietako kartzela egiteko aurreikusita zegoen lurzorua ez da osorik erabiliko, proiektu hori bertan behera gelditu baita. Kartzelaren orde, presoak gizarteratzeko zentroa egingo dela jakinarazi zuten Donostiako Udalak eta Espainiako Defentsa Ministerioak, abuztuaren hasieran. Eraikin horrek kartzelak baino leku txikiagoa hartuko du antza, eta, beraz, kartzelaren proiektuan jasota zegoen eta gizarteratze-zentroak hartuko ez duen lurzorua erabiltzea proposatu dio Donostiako Defentsa Ministerioari kuartel berria egiteko. Zubietako Eskuzaitzeta inguruan, hain zuzen ere. Jokaldi borobila, inondik ere.

Zubietarren nahia eta hitzari muzin eta entzungor egin, eta erosoak eta inork nahi ez dituen proiektuak Zubietan kokatzeko asmoarekin temati jarraitzen dute Gipuzkoako EAJko eta PSEko agintariek: errauste-planta, presoan gizarteratzeko zentroa eta kuartela. Gogorarazi nahi dugu 2016ko urriaren 22 eta 23an erraustegiari buruz egindako herri-galdeketa zubietarren % 64,7k hartu zuela parte, eta % 99,5ek esan ziotela ezetz erraustegiari.

Usurbildik, Zubietatik bezalaxe, kezka bizi ditugu Zubietarako dituzten egitasmoak. Larrialdi egoeran dago Zubietan, eta Usurbil ingurua ere. Izan ere, Zubietan ez ezik, Usurbilen ere izango dute eraginik, proiektu bata bestea: gure etorkizunaren jabe izan nahi dugu, inongo inposiziorik gabe, aire garbia arnastu nahi dugu eta ez dugu militarrik nahi gure inguruan. Ez Donostian, ez Zubietan, ez inon!

Halaber, gogorarazi nahi dugu, PTPa (Lurralde Antolaketarako Plana) landu zenean, Usurbilgo Udalak adierazi zuela Eskuzaitzetako eremurako proposamena eskualdearen iritzia aintzat hartuz egin behar zela, duen eskalagatik Zubietan gauza daitekeen planteamenduak Donostiari ez ezik, eskualde osoari eragiten diolako.

Bestalde, nabarmendu nahi dugu, abertzale eta independentista gisa, auzo-lotsa sentitzen dugula EAJ lekualdatzeez hitz egiten eta negoziatzen aditzen dugunean. Berriki, Eneko Goia bera Txaldataxurren egon da, 36ko altxamenduko lubakietako bat izan zen tokian. Hain justu, 2017ko urtarrilean Aranzadik gudari baten gorpuzkiak atera zituen handik, Eneko Goia bertan zela. Zer nolako paradoxa: 36ko gudariak han borrokatu ziren gure lurra defendatzeagatik, eta orain, Donostiako alkateak Espainiako Armadari eskaintzen dizkion lur berberak dira. Euskal gizarteak ez du kuartelen lekualdatzerik behar. Are gehiago, garai politiko berri hauetan. Militarrak eta Espainiako segurtasun indarrak Euskal Herritik alde egiteko eta desmilitarizatorako akordioa da behar duguna.

Honengatik guztiagatik:

1) Usurbilgo udalbatzak dei egiten die Donostia eta Gipuzkoako ordezkari instituzionalei Zubietan bakean uzteko eta zubietarrei aditzeko. Proiektuok bertan behera utzi eta zubietarren etorkizuna zubietarren esku uzteko eskatzen diegu.

2) Usurbilgo Udalbatzak Eusko Jaurlaritzari eta lurralde antolaketarako arduradunei esku hartzeko eskatzen die. Eskuzaitzetan proposatu diren proiektuen eskalak eta



Usurbilgo Udala

dimentsioak Donostia gainditzen du, eta, horrenbestez, ezinbestekoa da eskualdearen iritzia aintzat hartzea. Eneko Goiak, ordea, Donostiatik Donostiara egindako proposamena egin du, gainerako guztiei erreparatu gabe.

3) Usurbilgo udalbatzak Donostiako udal-gobernuari, eta, bereziki Eneko Goia alkateari, eskatzen dio Loiolako kuartelak Zubietara lekualdatzeko asmoari uko egiteko. Ez ditugu militarrek gure herrian eta bere inguruan izan nahi. Gainera, ez du zentzurik Europako herrialde militarizatuenean kuartel berri bat sortzeko proposamenak, ez Zubietan, ez Loiolan, ez inon. Horregatik, eztabaidaren muinari heltzeko eskatzen diogu, hau da, nola lortu Gipuzkoaren eta Euskal Herriaren desmilitarizazioa. EHbildu prest dago zeregin horretan bide-lagun izateko.”

Bozketan egin denean, emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

## **5.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:37etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**